



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

2.014KO UZTAILAK 3

OHIKO PLENOA

Bertaratuak:

**ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:**

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.
Harkaitz Arruti Eizagirre.
Oihane Arzalluz Beobide.
Luis Berrondo Lanceta.
Iñaki Irulegi Apalantza.

Bertaratu gabeak:

Leire Beristain Mendizabal.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamalauko uztailaren hiruko hogeita bat ordu eta hamar minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:
2014KO APIRILAREN 10 ETA APIRILAREN 28KO AKTEN ONARPENAK,
BIDEZKOA BADA.**

Idazkariak 2014ko apirilaren 10 eta apirilaren 28ko aktak onartzen diren galdetzen du eta aho batez onartzen dira.

**BIGARREN PUNTUA:
MEDIKUAREN ETXEA AUZO-ETXE, 2014 PROIEKTUA AZTERTU ETA
ONARTU, BIDEZKOA BADA.**

Puntu hau aztertzen hasi aurretik, Idazkariak hitza hartzen du eta " Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, Reglamento de Organización, Funcionamiento y



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

Régimen Jurídico de las Entidades Locales” eko 82.3 artikuloa literalki irakurtzen du : “ El Alcalde o Presidente, por razones de urgencia debidamente motivada, podrá incluir en el orden del día, a iniciativa propia o a propuesta de alguno de los portavoces, asuntos que no hayan sido previamente informados por la respectiva Comisión Informativa, pero en este supuesto no podrá adoptarse acuerdo alguno sobre estos asuntos sin que el Pleno ratifique su inclusión en el orden del día”.

Artikulu hau irakurri ondoren, puntua gai zerrendan sartzea aho batez erabaki da.

Alkateak medikuaren etxea auzo-etxe, 2014 proiektua erredaktatu duten Eneritz Arzallus Alustiza eta Izaro Zinkunegi Barandiaran andereei aipaturiko proiektua azalduko hitza ematen die.

Proiektua azaldu ondoren, Udalkideek hitza hartzen dute.

Alkateak eta Oihane Arzalluzek proiektua oso interesgarria iruditzen zaiela jakinerazten dute.

Oihane Arzalluzek telefonika eta interneteko gastuak bikoizten direla iruditzen zaiola jakinerazten du.

Iñaki Irulegik aipatzen du aurrekontu bat eskatu beharko dala Udala zein gastutan sartu behar den ikusteko.

Idazkariak jakinerazten du proiektua Gipuzkoako Foru Aldundira bidali beharko dala guzti honen berri izan dezaten eta Oihanek erantzuten du proiektuaren kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundira bidalita dagoela.

Oihane Arzalluzek galdetzen die zinegotziei ea proiektua zer iruditzen zaien.

Luis Berrondok aipatzen du denbora gutxian informazio gehiegi jaso dala.

Iñaki Irulegik galdetzen du ea mediku etxeko beheko zatiarekin zer egin behar den.

Iñaki Irulegik adierazten du instalazioak begiratu beharko litzatekeela.

Gai honen inguruan hitzegi ondoren, hauxe da proposamena:

- 1.- Mediku etxeko obrak bukatzen direnetik hitzarmena urtebetekoa izatea.
- 2.- Etxebizitza auzolanean txukuntzen hasi aurretik, eraikuntzaren ikuskapen oso bat egitea, hau da, argindarra, gasa etab.
- 3.- Proiektu honen exekuzioan edozein arazo sortuko balitz, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jartzea.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

4.- Alkatea den Maria Jesus Salsamendi andereari proiektu honen titular diren Izaro Zinkunegi Barandiaran eta Eneritz Arzalluz Alustiza andereekin hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Bozketa egin ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Harkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Luis Berrondo Lanceta, eta Iñaki Irulegi Apalantza.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, medikuaren etxea auzo-etxe, 2014 proiektua aho batez onartzen da.

HIRUGARREN PUNTUA:

MARI JESUS SALSAMENDI ASTIAZARAN ANDEREAREN JABETZAKOA DEN LURSAILEAN BIRZIKLAPEN INSTALAKUNTZA BAT KOKATZEKO LURSAILAREN ERABILERA LAGATZEKO HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Idazkariak hitzarmenaren berri ematen du eta hitzarmenak literalki zera dio:

“ BILDURIK

ALDE BATETIK:

JOKIN UZKUDUN GOENAGA, adinez nagusia, Errezilen helbideratua eta N.A.N. 44.333.056-G zenbakiduna. Kontratu hau izenpetzen du Errezilgo Udal Osoko Bilkurak 2.014ko uztailearen hiruan egindako bilkuran hartu zuen erabakia burutzeko.

BESTETIK:

MARIA JESUS SALSAMENDI ASTIAZARAN, adinez nagusia, Errezilgo Gorotzene baserrian helbideratuak eta NAN 72.436.165-B zenbakiduna.

Eta neronek lagunduta Errezilgo Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak, egintza honi buruz fede ematen dudanak

AURREKARIAK

- 1.- Maria Jesus Salsamendi Astiazaran lursail honen jabe da (planoa eransten da):



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

“ Terreno ribazo, que fue pertenecido de la casería o Casa San Esteban, de Régil, que linda al Este con regata Errico-erreca, al Norte casería Loidi-aspicoa y demás lindes con finca de donde se segregó. Mide esta porción segregada ocho áreas de extensión aproximadamente.

2.- Errezilgo Udalak zaborren birziklapena egiteko aipaturiko terrenoaren 40 metro karratu inguruko lursail bat beharko du bertan birziklapen instalakuntza bat eraikitzeko. Instalakuntza hau zaborraren gestioa aurrera eramateko egingo da eta ondorioz, gizarte intereseko erabileratzat har daiteke.

3.- Halaber, behean izenpetzen dutenak kontratu hau sinatzeko gaitasun osoa aitortzen diote elkarri.

HORI DELA ETA, HAUXE ERABAKI DUTE:

LEHENA: Maria Jesus Salsamendi Astiazaranek doan lagatzen dio Errezilgo Udalari lursail horren erabilera aipatutako berziklapena egiteko instalakuntza eraikitzeko 10 urtez. Epe hori luzatu ahal izango da.

BIGARRENA: Nolanahi ere, kontratu hau edozein unetan hautsi daiteke, bi alderdiek hala eskatuta edo alderdi batek hala eskatuta lagatako lursailaren xedea betetzen ez delako.

HIRUGARRENA: Instalakuntzaren erabilera bukatzen denean, instalakuntza ordenaziotik kanpo dagoela kontsideratuko da eta Udalak instalakuntza bota egingo du.

LAUGARRENA: Bidearen erabilera Udaletxeak bermatu beharko du.

BOSTGARRENA : Nolanahi ere, Udal honek lursaila lehenatzeko konpromisoa hartzen du, kontratua amaitu ondoren”.

Gai honen inguruan hitzegin ondoren, Harkaitz Arruti zinegotziak Udalak instalakuntza hau eraiki behar duenaren jakinerazpena Domusa enpresara bidaltzea proposatzen du eta zinegotzi guztiek adostasuna ematen dute.

Bozketa egin ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

- 1.- Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Harkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzalluz Beobide, Luis Berrondo Lanceta, eta Iñaki Irulegi Apalantza.
- 2.- Aurkako botoak: ez dago.
- 3.- Abstentzioak: ez dago.



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

Beraz, Maria Jesus Salsamendi Astiazaran anderearen jabetzakoa den lursailean berziklapen instalakuntza bat eraikitzeko lursailaren erabilera lagatzeko hitzarmena onartzea aho batez onartu da.

LAUGARREN PUNTUA: ERREZILGO UDALA ETA ATALA KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA BESTE URTEBETERAKO LUZATZEA ONARTZEA.

Ikusirik 2012ko uztailaren 26an Errezilgo Udala eta Atala Kultur taldearen arteko hitzarmena sinatu zela, hitzarmenaren baldintzetako bat hitzarmena hiru urterako izatea eta berbera urtero berritzea zelarrik.

Udalbatzak, aho batez, eta Batzordearen diktamena kontuan izan ondoren, 2012ko uztailaren 26an sinaturiko hitzarmena bere osotasunean onartzea erabaki du, beti ere, ondorengo 2 aldaketak sartuaz:

1.- Hitzarmeneko 1.klausulan jasotakoaren arabera, Errezilgo Udala eta Atala Kultur elkartearen arteko hitzarmena beste urtebeterako luzatzea onartzea, hau da, 2015ko uztailaren 26 arte.

2.- Hitzarmeneko 8.klausularen ordezkari ondorengo 8. klausula ezartzea: Zokomian hilabetekariaren lanak aurrera eramateko dirulaguntza, 2013ko azaroaren 7ko Plenoan kultura eta kirol jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko onarturiko udal ordenantzaren arabera emango da.

BOSTGARREN PUNTUA: SAN ANTONIO JAIETAKO LIKIDAZIOAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Jokin Uzkudun zinegotziak 2014 urteko San Antonio jaietako festen likidazioaren berri ematen du, ondorengo kontzeptutan banatuta:

2014ko SAN ANTONIOAK - LIKIDAZIOA-

SAN ANTONIOAK 2014ko ekaina

EGUNA	ORDUA	EKINTZA	KOSTUA	IRABAZIAK
13, ostirala	11:00:00	Meza		
		Trikitilariak	300,00 €	
		Hamaiketakoa	488,15 €	
		Gorriti	400,00 €	



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA

		Goxokiak	80,00 €	
	21:00:00	Herri afaria (desglosatu)	3.387,13 €	4.593,00 €
		Kamisetak	1.518,00 €	1.100,00 €
	Afalostean	Gaztetxoen dantza emanaldia	40,00 €	
	Ondoren	Ingo al deu	1.391,00 €	
14, larunbata	12:00:00	Paella lehiaketa	294,64 €	255,00 €
	16:00:00	Haurrentzako herri kirolak	660,00 €	
	17:30:00	Poteoa	600,00 €	
	20:00:00	Sagardo eta pintxo dastaketa	547,76 €	1.190,00 €
	22:00:00	Kokakola eta barea	450,00 €	
	23:00:00	Obaneuke Borondegiko afaria	900,00 € 86,80 €	
	Goizaldera	DJ Urki	120,00 €	
15, igandea	12:00:00	Dantza sueltoko txapelketa	500,00 €	
	17:30:00	Herri kiroleko afaria	500,00 €	
Bestelakoak		Kartelak eta errifak Ane Uzkudun: kilometraia	510,62 € 15,00 €	768,10 €
		Iragarleak		990,00 €
		Azpiegitura	110,89 €	
		Edalontzi berrerabilgarriak	242,48 €	
GUZTIRA	-4.246,37 €		13.142,47 €	8.896,10 €

HERRI AFARIA

	GASTUAK	SARRERAK
Solakako ogiak	46,00 €	



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

Iraola Zaharreko ogiak	54,00 €	
Kafea	30,00 €	
Ontziak	485,00 €	
Errotaundi	170,00 €	
Denda	268,00 €	
Egaña	400,00 €	
Eroski	145,99 €	
Erniopeko edari eta puruak	440,00 €	
Ondarre (letxuak, tipulak)	87,00 €	
Oilaskoak	944,38 €	
Sagardoa	288,00 €	
Beste gastu batzuk	28,76 €	
Tiketak		4.593,00 €
GUZTIRA 1.205,84 €	3.387,13 €	4.593,00 €

DIFERENTZIA

4.246,37 €

Jokin Uzkudunek dio herri afariko ontzien zatian 485 €-tako kantitatea azaltzen dala eta kantitate hau ontzi berriak erosi direlako dala.

Beraz, Jokin Uzkudunek dio denera Udalarari San Antonio jaiak 4.246,37 € kostatu zaizkiola.

Festen inguruan hitzegin ondoren, Luis Berrondok Udalarenak diren aulkiak oraindik numeratu gabe daudela eta aktan hau jasotzea komeni dala aipatzen du, horrela aktan irakurri ondoren berriro ere gogorarazteko.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

- 1.- Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Harkaitz Arruti Eizagirre, Oihane Arzálluz Beobide, Luis Berrondo Lanceta eta Iñaki Irulegi Apalantza.
- 2.- Aurkako botoak: ez dago.
- 3.- Abstentzioak: ez dago.



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

Beraz, San Antonio jaietako likidazioa aho batez onartuta geratzen da.

**SEIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT MOZIOEN ONARPENA.**

1.- Euskal Kutxen etorkizunari buruz, 2014ko ekainaren 23an EHBildu-ren izenean Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioak literalki zera dio:

“ Joan den urtearen amaieran Estatu Espainolean Aurrezki Kutxak eta Fundazio Bankarioen, abenduaren 27ko, 26/2013 Legea onartu egin zen. Lege honek EAeko Aurrezki Kutxen Legeari nola eragingo dion –eta ondorioz KUTXA ren Estatutu eta Araudiari ere- oraindik zehazteke dago, eta beraz, honen garapena zalantzarik betetakoa daukagu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Fundazioak bihurtzeko urtebete baino gutxiago falta den une honetan, oraindik ez dakigu zein izango den beraien Gobernu Organo berriak osatu eta aukeratzeko prozedura.

Honez gain, azkeneko hilabeteetan, KUTXABANKeko hainbat bozeramailek banku honen %70aren salmentaren ezinbestekotasunaz ohartarazi egin dute, salmenta hau aipatu Legeak, Europako Banku Zentralak eta Memorandun Of Understansing-k (MOU) ustez plazaratutako aginduetan oinarrituz. Mota honetako adierazpenak, bilatzen duten helburua edozein izanik ere, hiritargoa nahasteko besterik ez dira egiten, izan ere ez Europak ezta Madrilek ere ez dute derrigortzen Kutxabanken pribatizazioa.

Gurea bezalako Udalentzat hil hala bizikoa da Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko tresna finantzario nagusiaren kontrol publikoa mantentzea. Ezinbestekoa da KUTXABANKek mende eta erdi baino gehiago funtzionatu duten Aurrezki Kutxen sorreraren izpirituari eustea, horrek bakarrik bermatu baitezake interes publikoaren defentsa, Gizarte Ekintzaren sustapena eta bertako herritar, ehun produktibo eta sare instituzionalaren interesen aldeko apustua.

Guzti honegatik, EHBilduko Udal Taldeak honako akordio puntuak aurkezten ditu Errezilgo Udaleko Udalbatzak eztabaidatu eta onartu ditzan:

1- Errezilgo Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei dei egiten die, KUTXABANKen pribatizatzea baztertu dezaten eta bere jarduera gure lurraldeko herritar zein finantza beharrianetara zuzendu dezatela eskatzen die.

2- Errezilgo Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, KUTXAKo Gobernu Organoek Gipuzkoako jendartearen parte hartzea, bere ordezkari-tza proportzional efektiboa eta barne demokrazia eta gardentasuna bermatu dezaten. Eta



ERREZILGO UNIBERTSITATEKO UDALA

horregatik dei egiten die egungo Gobernu Organoei etorkizunean gauzatu daitekeen estatutu edo araudiaren edozein aldaketan oinarri hauek bermatu ditzaten, jarrera hau baliatuz eta defendatuz izaera juridikoaren aldaketa proposa dezakeen edozein ekimenen aurrean, hala nola aurrezki kutxak eta finantza arloko beste entitateen marko normatiboaren edozein erregulazioaren aurrean ere mantenduz.

3- Errezilgo Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, honen Gobernu Organoak osatuko dituzten kideak entitate fundatzaileek, KUTXAKo langile eta ezarleek eta Gipuzkoako gainontzeko Udalek proposatuak eta hautatuak izan daitezela, eta horregatik egungo Gobernu Organoei etorkizunean gerta daitekeen edozein araudi edo estatutuen aldaketaren aurrean oinarri hau bermatu eta gordetzeko eskatzen die.

4- Errezilgo Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, KUTXAK bere KUTXABANKen parte hartze portzentajea gutxitzea suposa dezakeen edozein pribatizazio edo desinbertsio programa espresuki baztertu dezaten, gutxienez %32koa izaten jarraituko duelarik.

5- Errezilgo Udalak, korporazio fundatzaile diren Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udalari eta KUTXAKo Gobernu Organoei eskatzen die, erakunde horren Gizarte Ekintzaren defentsa irmoa eta beraren suspertzearekiko konpromisoa adierazi dezaten eta hortaz, Gizarte Ekintzaren izaera alda dezakeen edozein araudi moldaketarekiko hala nola bere dimentsioa murriztea eragin dezakeen edozein desinbertsioren aurkako jarrera izan dezaten.

6- Errezilgo Udalak Eusko Legebiltzarrari eskatzen dio aurreko puntuetan aipatzen diren oinarri eta edukiak etorkizunean 11/2012, Ekainaren 14koa den EAEko Aurrezki Kutxen Legeak izan dezakeen edozein aldaketan, edo balizko Fundazio Bankarioen Lege berri batetan, jaso ditzan.

7- Honako mozioa Gipuzkoako Foru Aldundia eta Batzar Nagusiei, Donostiako Udalari, KUTXAKo Kontseilari Orokor guztiei, Gizarte Ekintza Batzordeari, Administrazio Kontseiluari, KUTXAKo Lehendakaritzari eta Eusko Legebiltzarreko Talde Politiko guztiei helaraziko die.

Bozketa egin eta Batzordearen diktamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Oihane Arzalluz Beobide, Harkaitz Arruti Eizagirre, Iñaki Irulegi Apalantza eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.



**ERREZILGO UNIBERTSITATEKO
UDALA**

Beraz, BILDUren Maria Jesus Salsamendi Astiazaran andereak aurkezturiko mozioa aho batez onartzen da.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:
ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2014ko maiatzaren 29tik (75/2014 Alkatetza Ebazpena) 2014ko ekainaren 12ra (84/2014 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.


**BEDERATZIGARREN PUNTUA:
GALDERAK ETA ERREGUAK.**

1.- Idazkariak aipatzen du hurrengo Batzordea uztailaren 31an tokatzen dala eta jai eguna denez, uztailaren 30era aurreraztea. Gai honen inguruan hitzegin ondoren, hurrengo Batzordea uztailaren 29an egitea aho batez onartu dute.

2.- Alkateak jakinerazten du, 2014ko uztailaren 10etik aurrera eta urtebeterako Jon Ganzarain Epelde Arkitektoa kontratatuko dugula.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hogeita bi ordu eta hogeita bost minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut

H. J. Sals



Maria Jesus Salsamendi